

Laudion, 2022ko azaroaren 23an

Laudioko Haur eta Nerabeen Udal Kontseiluko haurrak gazteleku berriaren diseinuan arituko dira

Gune horren azken helburua erabakiak tokiko eremuan hartzea da, haur eta nerabeentzako udal-politikei buruzko gaietan, batez ere

Asteazken honetan, azaroaren 23an, Haur eta Nerabeen Udal Kontseilua osatzen duten Laudioko 20 haurrak udaletxera hurbildu dira, osoko bilkuren aretoan Ander Añibarro alkatea buru izango den lehen bilkura egiteko. "Parte-hartze aktiboko organoa da, elkarrekin ikasteko. Soilik haurrek izan dezaketen begiradatik aholkuak jasotzeko aukera da", nabarmendu du alkateak.

Kontseilua, haur, nerabe eta helduen arteko ikaskuntza kolektiborako gunea da, eta bertan Laudioko bizitzan eta herritarrengan eragina duten gaiei buruz iritzia eman, baloratu eta ideiak proposatzen dira. Azken helburua erabakiak tokiko eremuan hartzea da, haur eta nerabeentzako udal-politikekin zerikusia duten gaietan, batez ere.

Oraingo honetan, audioarrek hiru gai eztabaidatu eta landu dituzte: gazteleku berria, berdintasunerako film labur bat egitea eta adingabeen mendekotasunei buruzko ikus-entzunezko lan bat egitea.

Eztabaida intentsuaren ondoren, ikasleek gazteleku berriaren proiektua aurrera eramatea erabaki dute, "eguraldi txarretik babestuta dagoen espazio egokia delako gazteentzat", azaldu dute ikasleek. Zeharka, adikzioen prebentzioa ere landuko dute.

Talde politikoek, halaber, gazteria eta partaidetza politikei buruz eztabaidatu, eta ahots guztiei garrantzia emateko beharra azpimarratu dute.